



JOSE IGNAZIO MUNILLA AGIRRE JAUNAK,  
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,  
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

## DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO LIBURUTEGIAREN ERATZE-DEKRETUA

Kristau fedea kulturaren, ezagutzaren eta nortasunaren sortzailea da. Jainkoaren errebelaziotik datozen irakaspenak nahiz beste sorkuntza intelektualak jaso, gorde eta liburu zein beste euskarrietan zabaltzea Eliza Katolikoaren eta bere artzainen gogora izan da beti eta da gaur ere.

Urte luzez eta ahalegin aipagarritz, gure elizbarrutiko erakunde eta pertsona ezberdinek giza balio handiko liburutegi aipagarriak sortu dituzte. Gaur egungo beharrei erantzun ahal izateko eta liburutegien zaintza, antolaketa eta kudeaketa behar bezala aurrera eramateko, beharrezkoa ikusten dugu guztiak antolaketa bakarrean biltzea Gotzaindegiaren ardurapean, ahaleginak bateratuz eta indarrak optimizatuz.

Elizbarrutian liburutegi-erakunde berria sortzeak honako helburuak izan behar ditu:

1. Elizbarrutiaren ondare bibliografikoa –aintzinakoa zein berria– suspertzea eta Elizaren egitekoaren zerbitzuan eta komunitate zientifikoaren eskura jartzea.
2. Elizbarrutiaren bilduma bibliografiko ezberdinen jasotze, gordetze eta kudeatzea bateratzea, baliabideak aurreztuz eta gure liburutegiei eta erlijio-gaien aztertzaileei eskaini behar zaizkien zerbitzuak hobetuz.
3. Egungo ebanjelizatze-beharrei erantzungo dien jainkozko errebelazioaren eta giza kulturaren azterketa eta ikerketa egiteko lanabesa Elizbarrutiaren eskuetan jartzea.

Hau guztia kontuan izanik, Dekretu honen bidez, DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO LIBURUTEGIA ERATZEN dut, Donostiako hiri honetan dagoen Elizbarrutiko Seminarioan egoitza duena.

Izaeraz eta jabegoz Elizbarrutiarena den liburutegi hau, honako bilduma hauek osatzen dute gaur: Elizbarrutiko Seminarioko Liburutegiak, Artzain Ona Katedraleko Liburutegiak, Elizbarrutiko Artxibo Historikoan jaso dagoen Gotzaindegiko bilduma bibliografiko antzinakoak eta «José Ignacio Tellechea Idígoras» liburutegiak. Elizbarrutiko Liburutegiaren sorrerako bilduma diren hauek guztiek, jatorrizko titularitatearen memoria gordeko dute.

Elizbarrutiko Liburutegia Gotzain Jaunak izendatutako Zuzendari batek zuzendua izango da. Bere egitekoa izango da Liburutegia bera eta liburutegi-sistema abian jartzea eta kudeatzea Gotzainaren irizpideei jarraituz; bestetik, Gotzainaren ordezkari izango da Elizbarrutiko Liburutegiari dagozkien aferetan; azkenik, berari dago-kio liburu berrien erosketari buruz erabakiak hartzea.

Argitara bedi DEKRETU hau Gotzaindegiaren Aldizkari Nagusian, Kuriaren artxi-boan eta Donostiako Elizbarrutiko Liburutegian agiriaren kopia bana jasoz.

Donostian emana, 2017ko apirilaren 28an



✘ **Jose Ignazio Munilla Agirre**  
Donostiako Gotzaina

Gotzain jaunaren aginduz



Tomas Iraola Sarasua  
Kantziler-Idazkari Orokorra